

ITZULI

Sadamek kartzelak hustu ditu hauteskundeak irabazi dituela ospatzeko. Txetxeniar gerrillariak berriz, Moskuko antzoki bat hartu dute, ehunka pertsona bahituz.

Norbaitek esango du: zelako segurtasun eza herrialde horietan... Norbaitek esango du: nola liteke kartzela bateko preso guztiak askatzea, besterik gabe, agintariari apetak eman diolako, bere umorearen arabera eta gatibu zeudenen artean bereizketarik egin gabe: bortxatzaile, preso politiko, trafikante diren begiratu gabe? Azkenik, norbaitek, arnasa lasai hartu eta esango du: eskerrak gu demokrazian bizi garen...

Nago, ordea, ekintza hauek badutela zerbait sortzailea, ekar ditzaketen helburuak katastrofikoak suerta daitezkeenik ukatu gabe ere. Zerbait demostratzen dit kartzela bat hustutzeko harrokeria duen tiranoak. Eta zerbait demostratzen dit, halaber, xehetasun guztiak goitik behera pentsatu ondoren, talde batek Moskuko bihotza -zer da, bestela, errezel gorrilunez betetako antzoki bat?- inbaditu eta sistematikoki ukatuak zaizkion eskubideak errebindikatzen dituenen. Zer? Pultsua daukatela. Gauzak iraultzeko pultsio bat eta ondorioak jasateko ahalmena. Zainetan odola dutela eta ez argizaria.

Gurean berriz, gure made in Bertangoxo

Sadam ha vaciado las cárceles para celebrar que ha ganado las elecciones. En cambio, los guerrilleros chechenos han tomado un teatro de Moscú, secuestrando a cientos de personas.

Tal vez, alguien podría decir: ¿qué clase de seguridad en esos países?... Alguien dirá: ¿cómo es posible que liberen a todos los presos de una cárcel, sin más, por que le da la gana al dictador, según su humor y sin hacer distinción entre todos los que estaban presos, sin mirar si son violadores, presos políticos o traficantes? Por último, alguien, respirando tranquilamente, dirá: gracias a que nosotros vivimos en democracia...

Creo, no obstante, que estas acciones tienen algo creativo, aunque sin negar que los objetivos que pueden traer pueden resultar catastróficos. Algo me demuestra el tirano que tiene la chulería para vaciar una cárcel. Y, así mismo, algo me demuestra un grupo cuando, después de haber pensado todos los detalles de arriba a abajo, invade el corazón de Moscú -¿qué es, sino, un teatro lleno de cortinas granates?- y reivindica los derechos que sistemáticamente se le niegan. ¿Qué? Que tienen pulso. Un pulso para revolucionar las cosas y capacidad para sufrir las consecuencias. Que tienen sangre en las venas y no cera.

En nuestra casa, en cambio, nuestra

demokrazia, parlamentu, gure eskolaume eztabaidekin, munduko suburbio txiki bateko, historiaren karrika minimo bateko arazo txiki bat konpontzeko ez gara gauza. Ez daukagu pultsurik edo ez gara ausartzen izatera.

Ez dut txetxeniar gerrillarik eskatzen Principal antzokian. Ezta kartzelak hustuko dituen inor ere, hauek hustuz gero, galtzeko baino irabazteko askoz gehiago dugula iruditu arren. Pultsua duen jendea eskatzen dut. Alo? Ba al da norbait antzoki ilun honen bestaldean?

democracia y parlamento made in "todo va bien", con nuestras discusiones infantiles, somos incapaces de solucionar un pequeño problema de un pequeño suburbio del mundo, de una pequeña calle de la historia. No tenemos pulso o no nos atrevemos a tenerlo

No pido ninguna guerrilla chechena en el teatro Principal. Ni tampoco nadie que valla a vaciar las cárceles, aunque parezca que, después de vaciarlas, tengamos mucho más para ganar que para perder. Pido una gente que tenga pulso. ¿Alo? Hay alguien al otro lado de este oscuro teatro.